



2013-01-17

## **Liburutegiko txartela berriak beharko dute erabiltzaileek**

Liburutegia kultur etxera lekuz aldatuko du udalak otsailean, egindako aurreikuspenen arabera. Horregatik, erabiltzaileei txartel berria egiteko eskatu die udalak.

Liburutegian bertan orain arte erabilitako txartela aurkeztu behar da, NAN agiriagaz batera. Hainbat abantaila edukiko dituzte txartela berriak. Izan ere, Euskal Liburutegi Sare Nazionalaren Internet bidezko zerbitzua erabili ahal izango dute horrela. Liburuen maileguak luzatu edota dokumentuen erreserbak egitea posible izango dute [www.euskadi.net/katalogobateratua](http://www.euskadi.net/katalogobateratua) atarian sartuta.

Liburutegia kultur etxeko lehenengo solairuan egokituko dute, eta otsailaren erdialderako prest egotea aurreikusi dute udal arduradunek.